

Hilabete honetan On Jose Mariaren hainbat hausnarketa jasotzen ditugu, **LANari buruzkoak**, **GOGOETAK** liburuxkan zein **COOPERACIÓN** aldizkarian jasotakoak, guztiak ala guztiak gure Kooperatiba Esperientziaren lehen urteetan idatzitakoak. Mounier pentsalari pertsonalistarekin gogoraziz lanak pertsona nobletzen duela, behin eta berriz esango digu lanean etsenplua eman behar dugula eta lana humanizatu.

Behar dugun iraultzak lanean oinarritu behar du, ez mitoetan; batasuna lortu behar dugu, egian bermatuz eta sekula ere ez gezurrean, hipokrisian eta hutsegitean. Badira korronte batzuk, «kontsumitzen duen kontsumo gizartea» helburu, ongizate material hutsaren bidez drogatzen ahal gaituztenak, non gizakia gauza gisa kotizatzen den eta ez pertsona gisa; korronte horiei erantzuten die, gure artean, mugimendu kooperatiboak, pertsona gisa parte hartu eta jardutera deituz eta lagunduz. Eta pertsonak garen aldetik, gure ekimena, erantzukizuna eta gure sormena erabiltzen ditugu sorkuntzarako eta lanerako lehenengo zelula edo organismotik abiatuz, hau da, enpresatik abiatuz. Hala, ekonomia eraldatzeko jarrera berri bat abiarazi ahal izango dugu eta antolamendu sozio-ekonomiko berri bat sortu, gizakiaren duintasunarekin eta giza komunitateen eskakizunekin koherentea izango dena. p381

BESTE GOGOETA BATZUK

Ongizatea gozatzen jarraitzeko, eta libre izateko, hobeto lan egiteko prest egon behar dugu, giza eta gizarte baldintza hobeto, eta kalitatea eta egokitasuna direla-eta munduan desiragarriagoak izango diren produktu eta gaitasunekin, hartzaila guztien mesedetan. p283

Gizadiak hobeto bizitzeko duen bitartekorik onena gehiago eta hobeto produzitzea da, hau da, oinarritzko bi faktore hauek handitzea: produktibitatea eta kalitatea. p286

Gure herria jakitun da daukan ongizatea eta indarra herri horren seme-alaben lan ahalmenetik etorri direla. Lan erreserba eta kontingente horiek izan dira gure nortasun historikoa sustatu duten eta munduan ezagutarazi gaituzten armadak. p270

Lana, oroz ginetik, komunitateari egiten zaion zerbitzu bat eta pertsona garatzeko modu bat da. p263

Duintasunez bizitzeko, lana besarkatu beharra dago. p274

Lanaren betebeharra eta hortik datorren guztia seriotasunez hartzea, gaur egun eta gure kasuan, langileen samalda handiari egin dakiokkeen atxikimendu frogarik onena da. Guri, lana gure kabuz eta gure kontzientziaren, duintasunaren eta eskubideen arabera antolatu dugunoi dagokigu, inori baino gehiago, langilea egiteko kapaz dena behar bezala erakustea, eta egiaztatzea langilea benetako heldutasunera iritsi dela eskubide osoz jardutera sozio-ekonomikoak gidatzeko eta ondoriozko esku hartze politikoetan jarduteko. p498

Humanitateak gutxi batzuei esker izan du aurrerabidea azken 200 urtean: bizi ziren 15 milioi ingurutik, 5.000 baino ez ziren berritzaileak. Lanak eta adimen solidarioago batek lortu zuten aldaketa. Humanitateak ez zuen lan gehiago egin, adimentsuago baizik. COOPERACIÓN 10zbk.-1961/ekaina

Aurrerabide teknikoak hurkoekin lankidetzara handiagoa izatera behartzen du. Talde lana nagusitzen da: horrek ematen du emaitzarik onena. COOPERACIÓN 13zbk.-1961/iraila

Lanpostuak analisi on bat egin eta gero ematen dira: halaber, interesgarria litzateke norberaren kontzientzia kooperatibista ezagutzea. COOPERACIÓN 23zbk.-1962/uztaila